

ZENTROKO BATZORDEEN URTEKO TXOSTENA

EUSKARA BATZORDEA

2023 /2024 EKINTZAK

Batzordearen aktetan informazio gehiago eskura daiteke.

2023-24 ikasturtean Euskararen inguruan egindako ekimenak hauek izan dira:

- Egunean behin lehiaketa. Parte hartzaile kopurua: 29.
- 2023ko abenduaren 4 eta 5an. Euskara eguna dela eta, Fakultatean zenbait ekimen jarri dira martxan:
 - Lehiaketa (Egoitza zein atalean), zenbait galderei erantzunak: Euskara ikasteak merezi duela, zela esango zenioke zalantza daukan norbaiti? Euskaraz hitz egiten badakienari, merezi duela erabiltzea, zela adieraziko zenioke? Proposamen txukunen artean opari txartelak zozketatu ziren.
 - Euskarazko liburuen truke/dohaintza gunea hall-ean (Atalean). Euskarazko liburuen truke/dohaintza gune bat jarri da Fakultateko Gasteizeko atalean, gizarte langintzaren arloko irakaskuntzarako euskarazko liburu baliagarriak izan daitezkeen liburuekin, nobelak/literatura eta problematika sozialekin erlazionatutakoak.
 - Argazki lehiaketa (Egoitzan). Zer egingo duzu Euskararen Egunean? Egun horretako ospakizunetan parte hartzearen (lagunekin, ikaskideekin,...) argazki bat egin eta bidali behar da. Ospakizun mota eta non egin den adieraziz. Opari txartelak zozketatu dira.
 - Soziolinguistikako arloko liburuak maileguan (Atalean). Soziolinguistikaren arloko zenbait liburu erakus-gune batean jarri dira, Fakultateko Ataleko eraikuntzaren lehenengo solairuan, maileguan hartzeko aukerarekin.

Parte hartzea baxua izan dela komentatzen da.

Bestalde, Ataleko eraikuntzan, Soziolinguistika arloko liburuak, tabloian jarri dira egonkorki, norbait maileguan hartu ditzan nahi izanez gero.

- 2024ko martxoak 21ean, Atalean. Gizarte Langintza Ataleko Euskara Batzordeak antolatuta, CCE Ikerketa taldeko Jon Zabalak "Korrikaren eragin psiko-sozialen azterketa" hitzaldia eskaini zuen. Oso balorazio positiboa egin zuten entzuleek.

- Korrikaren inguruko eraikuntza-apaintze lanak egin ziren, Egoitza zein Atalean: posterrak jarri genituen eta Korrikaren "beroketa" ariketen adierazle bezala kirol-oinetakoak eskegi ziren bulegoetako ateetan Atalean.
- Campus BiziaLab. Hizkuntza erantzunkizuna proiektuaren barnean:
 - 2023ko urriaren 30an. Atalean. Gizarte Langintzako 4. mailako "Animazio soziokomunitarioa" ikasgaiaren barruan: Hizkuntza gutxiagotuak biziberritzeko lankidetzaren GARABIDEn eskutik, Maialen Sobrino eta ADITU Formazio Programako Asya Zayzaoui eta Miriam Mugmal hizkuntza ekintzaileekin Saioa.
 - 2024ko otsailaren 26an. Mario Zapata Solano-ren eskutik "Migratutakoen harrera gutxiagotutako hizkuntzen testuinguruan". Gizarte Langintzako 4. mailako "Animazio soziokomunitarioa" ikasgaiaren barruan.

2024/2025ko PLANA

- Euskara plana eraberritzea, EHUko IV Plana kontuan izanik.
- Egoitza-Ataleko Plan operatiboak, ikasturte hasieran zehaztuko dira.
- Bikain ziurtagirirako pausuak ematen jarraitzea.
- Ikasleen oinarritzko euskara maila ezarriko duen errubrika bat egitea.
- Ohiko ekintzak egiten jarraitu: euskararekin harremana duten ekintzak zabaldu, Egunean Behin lehiaketa, Euskararen eguna prestatu, Fakultateak antolatzen dituen ekimenetan euskararen presentzia zaindu, Euskaraldia.

Amaia Inza Bartolomé

Batzordeburua

2024ko ekainaren 17an